63. zenbakia ~ 2020-12

FEUSEREN 25. URTEURRENA

··ALE BEREZIA··

feuseelkartea@gmail.com

www.feuse.eus

2020/12

Farmaberri

FARMAZIALARI EUSKALDUNEN ELKARTEA

AMAIA GARITANOK IRABAZI DU SEFAC-EKO KONGRESUKO EUSKERAZKO POSTER ONENAREN FEUSE SARIA

Sefac-eko kongresua, Bilbo 2020ko urria

«FIBRILIZAIO AURIKULARRAREN DETEKZIOA ETA ONDOREN BURUTUTAKO PAZIENTE ARRITMIKOAREN KONTROLA KOMUNITATEKO FARMAZIAN» izeneko kasu klinikoa aurkeztu du Amaia Garitanok eta irabazle suertatu da Urriaren 19tik 22ra ospatu den SEFAC-eko kongresuan.

ZORIONAK AMAIA!

TESTU LABURREN FEUSE SARIA—2021

Testuak bidaltzeko epea 2020ko abenduaren 31 arte egongo da epea zabalik

Urtero bezela, Feuseren testu laburren sariarako testuak aurkezteko epea ireki da.

Helburua, farmazia edota osasunaren arloko gaien euskarazko dibulgazioa egitea eta hauek ezagutaraztea da eta horregaitik edozein motatako testuak onartzen dira (iritzizkoak, ikerketa lanak, etab).

Bete behar diren oinarriak, testuak originalak eta argitaratu gabeak izatea (ez dira argitaratutako lanen itzulpenak onartuko) eta gehienez 1000 hitz izango dituen eta word formatuan idatzia egongo den testua feuseelkartea@gmail.com emailera abenduaren 31 baino lehen bidaltzea izango lirateke.

ANIMATU PARTE HARTZERA!

EUSKARALDIA

EUSKARAK 365 EGUN

EUSKARALDIA 2020

2020an burutuko da bigarren edizioa, eta, oraingoan, entitateei ere ariketan parte hartzeko gonbidapena egingo zaie, euren eremuetan hizkuntza ohiturak aldatzeko urratsak ematen has daitezen, eta entitateko kideen parte-hartzea sustatu eta babestu dezaten.

BERRI LABURRAK

FEUSEREN 25. URTEURRENA · FEUSEKO KIDEAK HIZKETAN

1998 urtean izan nuen FEUSErekin lehen kontaktua. Garai hartan Gasteizko Euskal Unibertsitateko Farmazia fakultateko ikasle nintzen eta bertako ikasleen Euskara Taldeko arduraduna. FEUSEtik garaiko presidente zen Patxi Arrasate etorri zitzaigun ia euskaraz hitzaldi batzuk antolatu genitzakeen. Oraindik euskara ez zegon guztiz murgilduta fakultatean eta zalantza asko izan arren antolatu genuen hitzaldi bat. Euskara farmazia munduan erabilgarri dela azalaraziz.

Praktika Gidatuak euskaraz egin nituen, txostena, ospitalean egonaldia, eta honek gure hizkuntzari bultzada emateko gogoa sortu zidan. Behin ikasketak bukatuta, Gipuzkoako Farmazialari bezala elkargokidetan nintzen eta hor FEUSEn izena eman nuen. Angel Garay zen momentu horretan elkargoko idazkari tekniko eta berarekin batera euskara elkargoan normalizatzeko gauzak egin genituen (liburutegia, testu batzuk, euskara taldea...). 2007an Peio Iturriak bere zuzendaritza batzordeko kide izateko iradoki zidan eta gogotsu ekin nion, baziren gauza politak FEUSEk egiten zituenak, eta horrek bultzatu ninduen eragile izatera. Garai horretan orain lagun ditudan kideak ezagutzeko para izan nuen, Sonia Saez de Buruaga, Unai Berasategi, Peio Iturria, Juan Karlos Aristorena eta beste asko. Beranduago Peiok bere testigua eman zidan eta ni nintzen presidente, Gasteizko Farmazia Fakultatean egindako Batzar Orokorrean. Hor Amaia Garitanori eman genien FEUSE saria, TDAHren inguruko lan batengatik.

10 urte presidente bezala egon eta gero, hasieran nire buruari jarritako erronka batzuk gainditu ditugu, azken urtetan elkartea pixka bat zientifikoago izateko bultzadan. Hiztegia digitalizatu genuen eta azken urte honetan SEFACen kongresuan euskarari presentzia eman diogu, eta euskarazko komunikazioak izan ditugu. Honekin uztartu ditugu gure ingurua ezagutzeko aukerak, Añanako Gatzaga, Gernikako juntetxea, Gasteizko katedrala, Iruñeako harresiak, Zugarramurdi kobazuloak, Metauteneko trufa museoa, Zumaiako flyscha horien artean. Gainera gure elkarteko kideak ezagutu ditugu, beraz, esperientzia aberasgarria izan da. Eta orain zer, 25 urte eta gero non dago FEUSE? Hertzainak taldeak esaten zuen bezala " ez dira betiko garai onenak..:" baina oraindik gure hizkuntzak bultzadak behar ditu. Dugun ondare historikoa da euskara eta horri bultzada ematen jarraitu behar dugu. Berriki izan den Euskaraldiaren lemak dion bezala, gehiago, gehiagotan, gehiagorekin; eta horretarako gure elkarteak guztion beharra du. Animatu nahi dut honaino iritsita beste 25 urte bete arte ia guztion artean elkarteari laguntzen diogun. Lanak, iragarkiak, erakustokiak… euskaraz ere jarri, paisaia euskaldundu eta lehen hitza euskara izatea bultzatu dezagun. Farmazialariak ere euskaldunak bagara eta FEUSEk horretarako lagungarri izan nahi du. Kide berriak behar ditugu, ideia berriak eta guztiok animatu behar ditugu farmazialari berriak elkarteko kide partehartzaile izaten.

Hemendik 25 urtetara, gure elkartearen urrezko ezteietako testuan idatzi nahiko nuke, Gasteizko fakultatean euskarazko ikasketak burutu ahal izan diren bezala, farmazia euskaldun bat izatea ez dela ezinezko izan. Besarkada bat bidali nahi diet elkartea posible egin duten guztiei.

IBON MOKOROA GONZALEZ (Feuseko presidentea)

Igaro dira 25 urte FEUSE (farmazialari euskaldunen elkartea) sortu zenetik. 25 urte, luze eta motz aldi berean. Nire kasuan, ezin dut gogoratu FEUSErik gabeko garairik, beti izan den elkartea iruditzen zait, izan ere nire lan ibilbidea FEUSErenarekin bat dator denboran. Baina beste alde batetik begiratuta, polita bezain deigarria egiten zait, hain denbora gutxi duen elkarte batek , hain errealitate ezberdinak bizi izan dituzten hainbeste belaunaldiren ilusioa piztu eta bateratu izana. Alde batetik hor egon ziren XX.garren mende hasieran jaoiotako farmazialari euskaltzale haiek, esate baterako Iñaki Lasa Aiestaran Oriotarra eta Angela Loidi Bizkarrondo, duela gutxirarte hainbat bazkaritan berarekin egoteko plazerra eskeini ziguna. Bestetik hor dago mende bukaeran sortutako belaunaldia ere, egiten duten lanarekin lekukoa esku onetara joan dela erakutsiz, denon lasaitasunerako. Niretzako, beste gauza guztiez gain, FEUSE lagunarte bat ere izan da, gure lanbideak lotzen gintuen familia euskaltzale bat. Atsegin handiz gogoratzen ditut txango, batzar eta otorduak. Asko apreziatzen dut goxotasun hori. Bukatzeko, eskerrak eman nahi nizkioke, bakoitzak bere erara, elkarteari bere ekarpena egin dion orori. Aipamen berezia egin nahi nieke, batetik, hasierako talde sortazaile hari, eta baita ere, elkartea noraezean eta etsipenak gaina hartuta zegoen momento hartan, elkartearen motorra izateko ardura hartu zuten gazteei, izan ere gaur egun ere FEUSEk bere ibilbide txukuna jarraitzea ahalbideratzen dute eta. Bihotzez Mila esker!

UNAI BERASATEGUI ASURABARRENA (Feuseko idazkaria)

Mende laurdena ez da urtero betetzen. FEUSEK, baina, bete ditu eta, gainera, urteekin hazi eta sendotu egin da.

Sorrerako urte haietan farmazia arloan euskaraz lan egiteko zegoen beharrak, nahiak eta gogoak bultzatuta jaio zen FEUSE. Buruan ditut hasierako bilera haiek, Groseko Osasun Sailaren eraikuntzan, korrika eta presaka eguerdian libre genituen orduetan elkartzen ginenean, ondo jakin gabe ekimenetik zer etorriko zen. Helburuak finkatu eta lan-taldeak osatu ondoren, han hasi ginen lanean gogotsu. Bidea oparoa izan da eta urteetan zehar kide gazteak amets honetara gehitzea izan da pozgarriena. ***"Horrela… baietz beste 25!" esango dut.***

Miren Fuldain Isasi-Isasimendi (Feuseko diruzaina)

Feuseko kideok zorioneko gaude. Izan ere, Feusek aurten 25 urte bete ditu. Urrun dago 1995eko apirilaren 11 hura, non izan genuen bileran, Farmazilari Euskaldunen Elkartea (Feuse) deitu genionaren estatutuak onartu genituen (orain ez diogu Farmazilari deitzen, Farmazialari baizik). Egun hartan, Elkartean, ez ginen hamar farmazialari baino gehiago izango.

1996ko urtarrilaren 26an, Elkarteko lehenengo Zuzendaritza Batzordea aukeratu genuen, eta urte berean, azaroaren 30ean, Elkartearen lehenengo Batzar Orokorra egin genuen Donostian. Egun hartan, Elkarteko ohorezko lehendakaria aukeratu genuen. Hurrengo urtean, 1997an, ohorezko bazkidea aukeratu genuen Plentzian.

Eta horrela, 25 urte hauetan, bata bestearen atzetik, urteko egun bat gorde dugu Elkartearen Batzar Orokorra egiteko. Egun hori, gainera, festa eta ondo pasatzeko eguna izan da guretzat. Batzordea Euskal Herriko oso leku desberdinetan egin dugu: hirietan, herrietan, museoetan, sagardotegietan, kultur etxeetan, Farmazialarien Elkargo Ofizialetan, upeltegietan… Egun hori, gainera, esan dudan bezala, festa eguna izan da guretzat, ondo pasatzeko eguna. Leku zoragarriak bisitatu ditugu, ondo bazkaldu dugu, bisita kultural ahaztezinak egin ditugu, asko ikasi dugu.

Urte hauetan guztietan makina bat ekintza gauzatu ditugu: Feuse saria, Feuseren farmaburua, Jose Antonio Loidi bilduma, Farmazia Hiztegia, Farmaberria… Farmazialari jator batzuk omendu ditugu, mendi ibilbideak eta perretxiko bila irteerak egin ditugu… Hitzaldiak antolatu ditugu.

Elkarteak Bai euskarari ziurtagiria badu, Euskara Kontseiluak sortu zuenetik; Euskararen txantxangorria ekimena bultzatu du; Elkartea baita Euskaraldia ariketa sozialaren talde sustatzailea ere bada…

Feusek feuse.eus webgune berri eta bikaina ere badu. Bertan, albisteak, deialdiak, dokumentuak eta beste kontsultatu ahal dituzu, baita Feuseren Farmazia Hiztegia-ren bertsio berria ere, UZEI Terminologia eta Lexikografia Zentroak landua.

Elkarteak Buletin elektronikoa badu; halaber, Feusek lankidetza-hitzarmenak izenpetu ditu Bizkaiko eta Gipuzkoako Farmazialarien Elkargoekin, eta Sefac-ekin (Espainiako Familia eta Komunitate Farmaziako Elkartea) ere bai. Orobat, Twitter sare sozialean dago! Izan ere. sar zaitez @FeuseElkartea izenarekin eta ikusiko dituzu Elkartearen urratsak bertan.

Horregatik guztiagatik eta beste gauza askorengatik, nola ez gara harro egongo Feusekoak izateaz!!

Bi belaunaldi desberdinetako farmazialariok osatzen dugu jada Feuse. Guztiok gara beharrezkoak. Elkarteko Zuzendaritza Batzordea babestu behar dugu, bakoitzak ahal dugun neurrian Zuzendaritza Batzordeko kideekin lankidetzan aritu behar dugu, antolatzen dituzten ekintzetan parte hartzen saiatu behar dugu ere bai. Era berean, guztiok ahalegintxoak egin behar ditugu gure Elkartera farmazialari gehiago erakartzeko. Elkartean zenbat eta gehiago izan, orduan eta indartsuago eta ederragoa izango da.

Zorionak bada, Feuse!! **Pello Iturria Sarasibar (Feuseko presidente ohia)**

Iragana gogora ekarriz, egungo egoerarekin antzekotasunez eta desberdintasunez jokatzeko.

Historia oharrak: Kolera

Frantziako mugan osasun-kordoi bat ezartzeko neurria hartu du Gobernuak, Toulonen agertu den kolera Espainian sartzea saihesteko, eta bidaiariak zein merkantziak fumigatzea eta zazpi eguneko berrogeialdia gordetzea agindu du.

Donostian zenbait neurri hartzea proposatu du alkateak

"1. Debektuta dogo etxeetako sotanoetan bizitzea, ezta bizigarritasun-baldintzarik ez duten biltegi eta txapituletan ere, eta 30 eguneko epea ezartzen da xedapen hau zehatz-mehatz betetzeko.

2. Epe horren barruan, eta inolako aitzakiarik gabe, zuritu eta garbituko dira behar duten logela, patio eta eskailera guztiak, bai eta tabernak eta sagardotegiak ere.

3. 60 eguneko epearen barruan, jabeek sifoiak jarriko dituzte komun-ontziekin edo estoldeekin topo egitean desenkusatuen jaitsieren hodien muturrean, eta, gainera, sifoiak jarriko dituzte komun-ontzi batzuk ez dauden komun-ontzi, desenkusa eta harraskagailu guztietan. Partikularrek zabarkeriaz jokatzen badute, agintariek aparatu horiek beren kontura jarriko dituzte.

4. Egindako estolda orokorrak dituzten kaleei dagozkien etxeetan, gordailu erkideak ezabatzen dira, eta jabeek berehala eraiki behar dituzte estolderiaren zuzeneko hartuneak.

5. Ukuiluak aireztatu eta garbitu egingo dira berehala, batez ere etxeetako sotoetan daudenak eta ukuilu horietako gorotzak egunero aterako dira.

6. Erabat debekatuta dago gordailu komunetako ateak irekitzea, eta jabeek itxita eduki behar dituzte, horiek garbitu arte.

7. Etxeetan eta biltegietan ez da arropa zikinik izango, eta garbiketa arrunta egiteko arropa ere berehala eramango da garbitegietara.

8. Herriko etxeetan dauden oilategi, usategi eta abere mota guztiak desagertuko dira, baita hezur eta trapu biltegi guztiak ere.

9. Arauzko baldintzak betetzen ez dituzten kafe, taberna eta sagardotegiak berehala itxiko dira, inolako begirunerik gabe.

10. Aurreko erregelen arau-haustearen ondoriozko erantzukizuna eskatuko zaie falta zein etxetan nabaritu eta etxe horien jabeei.

Alkateak adierazi du gaitza gehiago etorriko balitz, trenbide-erreiaren geltokian barrakoi bat jarri beharko litzatekeela, bide horretatik iristen diren bidaiariek eta salgaiek fumigatzeko; eta, are gehiago hurbiltzen bada, zenbait barrakoi jarri beharko liratekeela herriaren inguruan, bertara sartu nahi duten guztiek fumigatzeko. Gaixotasuna hirira iritsiko balitz, komenigarria litzateke kare kloruro asko erostea, klase proletarioan banatzeko, bere gelak desinfektatzeko; karea, hilerriko hilobietan botatzeko ere kopuru handi batean, eta kare kloruroa gorpuak eramaten dituzten kutxetan, eta frutak saltzea erabat debekatzeko. Etxeetan hartu beharreko higiene-neurri guztiak betetzea eskatu behar zaienei 50 pezetako isuna ezarriko zaie lehen arau-hausteagatik eta erantzukizun kriminalagatik, berrerortzeagatik.

1866ko uztailaren 12ko Errege Aginduak, kasu horietarako, Osasungarritasun Batzorde bat izendatzea xedatzen du. Batzorde hori zinegotziek eta Udalbatzatik kanpoko pertsonek osa dezakete, biztanleria zaharra bi gunetan zatituz eta berria hirutan, bakoitzari hiru pertsonako azpibatzorde bat eta landa-auzo bakoitzeko pertsona-kopuru bereko beste azpibatzorde bat esleituz.

Ospitale berria suminkorrak jasotzeko moduan ote dagoen galdetuta, presidente jaunak ezetz erantzun du, eta, hala balitz ere, oso desegokia litzatekeela, ospitalea oso auzo jendetsuan dagoelako eta, gainera, bertan gaixotasun arrunten ospitalea dagoelako. Gaineratu du osasun-xedapenek agintzen dutela kasu horietan barrakak eraikitzea kolerak erasotutakoentzat.

Materia beltzak erauzteko agindu ziren makinak eskatzeko eskatzen da. Landa-eremuari arreta handia jartzea proposatzen da, Gros auzotik hasita, garbitasunari dagokionez asko uzten baitu desiratzeko.

Galdetzen da ea gaixo barioloso gutxi daudenak behar bezala isolatuta dauden. Presidente jaunak erantzun du gaixoak higiene-baldintza onak dituzten geletan daudela, bisitatzen dituzten medikuen iritziz. Medikuen iritziz baldintza horiek betetzen ez dituzten etxeetan dauden guztiak eraman dituzte ospitalera, eta isolamenduari dagokionez, baztanga dagoen etxe bakoitzean ez da guardiarik ezartzen, garestia eta kaltegarria delako. Medikuek aho batez adierazi dutenez Arrazoi horrekin arrazoirik gabeko alarma sortu dela esan du; izan ere, hamahiru baztanga kasu baino ez daude, eta horietatik zazpi ospitalean, gaixorik daudenak eta egun batetik bestera aterako direnak. Iazko abuztuan baztangak eragindako heriotzak gertatu ziren hiri honetan, baina inork ez zuen jakin, orduan gaur baino diskrezio handiagoz jokatu baitzen.

Atentzioa ematen du Vergara kaleko estolda luzatzeak, hiriaren eta Amarako hormaren artean geldituta geratzen diren gaiak gidatzen baititu, elezaharretako miasmak sortzen dituzten usainak sortuz, eta kaiko pixatokiek ere oso usain txarrak botatzen dituzte.

Honako hau erabaki da:
"1. Alkateak proposatutako guztia onartzea, eta hori betetzeko bando bat argitaratzea. 2. Hiriko Poliziaren Batzordeari eta Landaguneari agintzea alkate jaunak proposatutako moduan izendatu behar dela salubridadea, bai eta eskolak zuritzeko, estoldak garbitzeko, ura kaleetako areketatik ibilaraziz eta etxe guztiak hustuz, batez ere San Martin auzokoak eta San Bizente atzekoak, biztanle gehiegi baldin badaude, zenbaki hori behar den punturaino murriztea 3. Mediku titularrei hiriko garbilekuak aztertzeko ardura ematea, eta zein desagertu behar diren eta zein kontserbatu behar diren proposatzea, haietako bakoitzak dituen baldintzen arabera. 4. Udal albaitariei aginduak ematea fruta eta arrain guztiak zehatz-mehatz ezagut ditzaten, eta garai hartan ez zeudenak botatzeko agintzea. 5.- Probintzia honetako Bide, Ubide eta Portuetako ingeniari buruari jakinarazpen bat zuzentzea, kaiko pixatokiak desagertzeko agin dezan erregutuz. 6. Etxeetatik materia fekalak ateratzeko makina berriak eskatzea. 7.- Obra Batzordeari baimena ematea Vergara kaleko estolda luzatzeko eta Printzearen kalekoa eraikitzeko. "

Donostiako Udal Artxiboa. Akten erregistroa. Vol.399 a.a.14 1884 ekainaren 28a.

Angel Garay Garay (Feuseko elkargokidea)

Iritsi da, aspaldian gure aho eta burutan generabilen FEUSEren 25.garren urteurrena. Guretzat, ospakizuna merezi zuen urtebetzea noski, beraz ospakizunaren bueltan ideia batzuk izan dira aztergai. Baina halabeharrez 2020 nahasi hau suertatu zaigu gure ospakizun urtea eta asmo guzti horiek ez dira bateragarriak COVID-19 famatuarekin. Ez, ez dugu elkarrekin aurrez aurre ospatuko, burutan genuen egun berezi hark itxaron egin beharko du, baina aparteko aldizkari bat izango dugu zilarrezko eztaietako opari, FEUSEren ibilbidea, esanahia, sentipenak etab..bilduko dituena.

Elkarte gaztea da 25 urtekoa, bainan zail da konturatzen elkartean eta oroar gizartean zenbat aldaketa izan den. Xarmaz oroitzen naiz garai bateko UFG(Union Farmacéutica Guipuzcoana)n egiten genituen bilerez, etzen whassap, e-mail eta skypik, mugikorrik ere ez geneukan gehienok. Lantokiko telefonoz geratzen ginen eta Euskal Herriko eskualde guztietatik joaten ginen Donostiara. Farmaberria banatzeko, banan banan sobre handi batean sartu, zigilua jarri eta postaz bidaltzen zitzaien kideei beraien etxeetara. En fin, mila adibide jar genitzake..

Etapa ezberdinak izaten dira 25 urtetan, batzuetan harreman hestuagoa izan dut elkartearekin, beste tarte batzuetan ez horrenbeste, bainan beti jarraitu izan ditut FEUSEren nondik-norakoak, eta beti gustora sentitu naizela FEUSEn esan behar dut, une atsegin ugari dut buruan eta ezagugutu dudan hainbeste kideentzat eskerrona besterik ez dut. Esker mile eta laister arte denori!

Beatriz Gaston Lujanbio (Feuseko idazkari ohia)

Badira ia hamar urte FEUSEren kide egin nintzala eta honek onura asko eman dizkit.

Lehenik eta behin gure lanbidea uste baino euskaldunagoa dela konturatu nintzen. Gure lanbideko hainbat protokolo, erabilera-orri, argidide eta aldizkari euskeraz idatzita daudela ikusi nuen. Eta nik unibertsitatean erdera hutsean ikasi nuenez, guzti hontaz ohartzea oso pozgarria iruditu zitzaidan.

Bestalde elkarteko kideok txangoak egin ditugu handik hona eta oso aberatsgarriak izan dira guztiak. Ondo pasatzeaz gain, gure harremanak sendotzeaz gain, eta Euskal Herriko txoko ezberdiñak ezagutzeaz gain, profesionalki ere lagungarri izan bait zait. Gure lanbideko berriak jakiteko, egunerokotasunean izan ditzazkegun zalantzak argitzeko, edo gure lanpostua hobetzeko ideia eta ekarpen berriak jasotzeko balio izan dit.

Laburbilduz, FEUSE elkartearen garrantzia azpimarratu nahiko nuke. Alde batetik gure hizkuntza bizitzen ari den garai ilun honegatik, eta beste beste aldetik farmazilarion harteko harremana ona izateak pertsonalki eta profesionalki on egiten digulako. Elkartearen 25. urteurrena ospatu behar dugu orain. Ia beste hainbeste betetzen dituen**!**

Xabier Astiz Zurutuza (Feuseko batzordekidea)

FEUSEko kide egin ginenetik (Esti 2003 / Ainhoa 2014), ilusioz hartu dugu parte elkarteak eskaini dizkigun proposamenetan.

Polita da gure mundu farmazeutikoan euskara bultzatzeko helburua duen jendea ezagutzea eta beraiekin elkarlanean aritzea. Lagun asko egin ditugu urte hauetan eta horietako askori esker ari gara gaur hemen 25. urteurrena ospatzen.

Hemendik aurrera, orain arte izan dugun Ilusioari eutsi behar diogu eta jende gazteari ilusio eta erantzunkizun hau transmititu behar diogu, askok 1993an hasi zenuten bide luze hau, beste hainbeste urtez eustea lortzeko.

ESKERRIK ASKO BIHOTZEZ GURE ELKARTEARI BULTZADA EMAN, ZABALDU ETA BIZIRIK MANTENDU DUZUEN GUZTIOI

Estibaliz Goienetxea Soto (Feuseko batzordekidea eta kolaboratzailea)

Ainhoa Oñatibia Astibia (Feuseko kolaboratzailea eta elkargokidea)

ESKERRIK ASKO DENORI!

feuseelkartea@gmail.com

www.feuse.eus